



BIDAIA-AGENTZIEI BURUZKO MAIATZAREN 22KO 81/2012 DEKRETUAREKIN ZERIKUSIA DUTEN OHIKO GALDERAK

1.- Noiz argitaratu da dekretua?

Dekretua 2012. urteko ekainaren 6an argitaratu zen (EHAA, 110. zk.), eta bidaia-agentziei buruzko Dekretua aldatzeko apirilaren 16ko 202/2013 Dekretu bidez aldatu zen. Nahi izanez gero, bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuaren bertsio kontsolidatuaren kontsulta egin dezakezu hemen.

2.- Ba al dago kauzio-aseguruaren edo abalaren ziurtagirirako eredurik?

Bai, badago. Kauzio-aseguruaren ziurtagiria izeneko formularioa ikus dezakezu, hain zuzen, “Bidaia-agentzien jardueraren erantzukizun-aitorpena” atalean. Kontuan izan eredu hori soilik dela baliozkoa, baldin eta aseguru-erakundearen paper tinbredunean inprimatuta badago.

3.- Eratuta dagoen berme bat aldatu nahi bada, ba al dago betebeharreko baldintzarik?

Bidaia-agentziei buruzko 81/2012 Dekretuaren 6.7 artikulua arabera, bidaia-agentzia bat ixten bada, indarraldiari eutsi beharko dio urtebeteko denbora-tartean, erregistroa ezeztatzeko dagokion espedientearen ebazpena administrazio-bidetik ezartzen denetik zenbatzen hasita.

Bermea aldatzen bada, berme-aldaketagatik (kauzio-aseguru edo abala) edo haren hartzaile-aldaketagatik (bidaia-agentziaren jardueraren enpresa titularra), berme berriak adierazi beharko du, berriaz, bidaia-agentzia abaldunak egindako bidaia konbinatuen kontratuak bermatuta daudela, bai eta aurretik aurkeztutako bermearen indarraldia amaitu baino urtebete lehenagoko denbora-tartean egindakoak ere. Horren helburua da turismo-erabiltzailea babesik gabe gera dadin eragozte; izan ere, hala geratuko litzateke abal-kontratua edo kauzio-aseguruaren kontratua sinatu aurretik egindako bidaia konbinatuen kontratuak berriaz bermatuko ez balira.

4.-Legearen arabera eratutako beste bidaia-agentzia batekin frankiziatutako bidaia-agentzia izanez gero, horri dagokion abala eratu eta beti eguneratuta izan behar dut?

Bai. Nahiz bi enpresa independentek elkarrekiko elkarlan-sistema hori adostu, ez enpresa bat ez bestea ez daude bidaia-agentziak arautzen dituzten xedapenak betetzetik salbuetsita; alderantziz, xedapen horien arabera, **bi enpresek izan behar dute lan horretarako titulua edo lizentzia (edo erantzukizun-aitorpena aurkeztuta), bidaia-agentzien jardueran jardun nahi badute, eta horrez gain, lan horretarako**

ezarritako xedapenak ere behar bezala bete behar dituzte (fidantzen erregimena, aseguruak eta abar).

Enpresa frankiziatzaileak baino ez badu baimena edo bera bada dagokion erantzukizun-aitorpena aurkeztu duen bakarra, turismo administrazioaren aurrean enpresa frankiziatua ez da betetzen ari turismo-araubidean ezarritako betebeharrak, jardueran ari baita aurretiazko baimenik gabe (titulu-lizentzia) edo erantzukizun-aitorpena aurkeztu gabe.

Ez da onargarria, ezta ere, pentsatzea enpresa frankiziatzailearen sukurtsal gisa ari dela lanean enpresa frankiziatu bat, baldin eta azken horrek ez badu aurkeztu bidaia-agentzia frankiziatzailearen sukurtsal gisa jarduerari ekin diolako jakinarazpena. Tituluak edo lizentziak (edo aipatutako erantzukizun-aitorpena aurkeztu izanak) emango lioke gaitasuna enpresa horri bidaia-agentziaren jardunean aritzeko, eta bulego nagusiaren bitartez jarduteko aukera izango luke, baina baita bere sukurtsal edo salmenta-puntuen bitartez ere. Alabaina, titulu edo lizentziaren (edo aurkeztutako erantzukizun-aitorpenaren) titularitatea daukan enpresaren jardueraz ari gara; hau da, frankizia ematen duen enpresaz ari gara, eta ez beste enpresa independente edo frankiziaturen batek egiten duenaz.

Funtsean, titulua edo lizentzia daukan edo derrigorrezko erantzukizun-aitorpena aurkeztu duen enpresa ez den beste enpresa bat frankizia-erregimenean aritzea ez litzateke zuzenbidez zilegi izango.

5.- Lizentzia duen bidaia-agentzia batek ba al du bere lizentzia beste enpresa bati uztea, kanon edo bi alderdien artean hitzartutako zenbateko baten ordainean?

EZ: Enpresa eskualdatuko balitz, eta horren ondorioz, azken batean, titularitatea aldatuko balitz, ezer baino lehen erantzukizun-aitorpena aurkeztu beharko luke, eskualdaketa horren berri emateko; hala, Turismo Administrazioak alde aurretik eskuan izango luke titular berriaren aitordpena, eta bertan adieraziko luke jarduera hori bete ahal izateko aplikatzekoa den araudiak betearazten dituen baldintza guzti-guztiak betetzen dituela, jarduerari dagokion dokumentazioa badaukala, eta jarduerak irauten duen aldi guztian beteko dituela, aurrerantzean, bete beharreko betekizunak. Hau da, **fidantzari buruzko betekizun espezifikoak (ikusi 2. galdera, bermeari buruzkoa), erantzukizun zibileko aseguruak eta turismo-araudiak ezartzen dituen gainerako behar guztiak bete beharko ditu titular berriak.**

Kontuan izan behar da taldea (handizkaria, txikizkaria, mistoa) eta eska daitezkeen fidantzak edota aseguruak -hasiera batean aitorturtakoak- eraginpean hartzen dituzten titulartasun-aldaketak eta bestelako aldaketak egin baino lehen, beste erantzukizun-aitorpen bat egin behar dela. (5.1.artikulua).

6.- Ba al dago “askiespen” erregistrorik?

EZ. Euskal Autonomia Erkidegoan ez dago erregistro hori, eta ez da beharrezkoa finantza-entitatearen ordezkarien ahalmenak egiaztatzea.

7.- Non jarri behar dira fidantzak?

Dekretu arautzailearen 6.2. artikulua ezarritakoaren arabera, fidantzak Euskal Herriko Ogasun Nagusian eratu behar dira. Hona hemen helbidea:

Eusko Jaurlaritza
Ogasun eta Finantza Saila (Diruzaintza)
Donostia kalea, 1
Lakua II eraikina, 1. solairua
01010 VITORIA-GASTEIZ

Euskal Autonomia Erkidegoaren Ogasun Nagusian eratu behar da bermea; horretarako, Ogasun horretan abalaren edo kauzio-kredituaren jatorrizko ziurtagiria aurkeztu behar da (edo Dekretu arautzailearen 6.2 artikuluan onartutako berme-motaren bat), han bertan erregistra dezaten, eta berme hori eratu delako erregistro-ziurtagiria jaso. Interesdunari bi ziurtagiri ematen dizkiote; bata, Turismon aurkeztu beharreko erantzukizun-aitorpenari erantsi behar zaio, eta bestea, bidaia-agentziaren artxiboan jaso behar da.


Ogasun eta Finantza Sailak ez du lurralde-ordezkaritzarik, baina itzuliko mezulari bidez aurkez daiteke abalaren edo kauzio-kredituaren jatorrizko ziurtagiria. Oso garrantzitsua da mezulariari ohartaraztea ez uzteko fidantzaren edo kauzio-aseguruaren jatorrizko ziurtagiria postabulegoan, eta argi eta garbi adieraztea mezulariari ezinbestekoa dela abalaren edo kauzio-aseguruaren ziurtagiria eskura ematea Ogasun Sailean, eta Ogasun Sailetik izen-ematearen jatorrizko bi ziurtagiriak jasotzeko.

8.- Zer aseguru-konpainiak daukate baimena kauzio-aseguruaren arloan jarduteko? (6.2.c art.)

Konpainia horien erregistroa Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioiko Aseguruaren Zuzendaritza Orokorren web-orrian eskura daiteke (tel.: 913397000).

[Entitate aseguratzaile eta berraseguratzailen erregistro publikoak](#)

Helbide horretan klik egin eta barruan zaudenean, “Ramos” atalean, hautatu “Caución” aukera.



“Ambito de aplicación” delako atalean, utzi berez datorren aukera (“Todos/as”).

10.- Erantzukizun-aitorpena aurkeztea nahikoa al da jarduera abian jartzeko?

EZ: Hona zer xedatzen duen Turismoaren antolaketari buruzko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 9.9 artikulua: *“Turismo-enpresek turismoko araez gain, honako arlo hauetakoak ere bete behar dituzte: ingurugirokoak, etxegintza eta eraikuntzakoak, makinak ipini eta martxan jartzekoak, osasun eta segurtasunekoak eta suteei aurre hartzeko arloan indarrean daudenak eta ezartzekoak diren beste guztiak”*.

Horrenbestez, bidaia-agentziaren jarduera turismo-arloko administrazioaren aurrean adierazi behar da, dagokion erantzukizun-aitorpena aurkeztuta; baina, horrez gain, beste administrazioei ere jakinarazi behar zaie (tokiko administrazioari eta abar).

Turismoari dagokionez, aitortpena dagokion erantzukizun-aitorpenaren bidez egin behar da (6/1994 Legearen 8. artikulua eta 81/2012 Dekretuaren 4. artikulua), eta hori kasuan kasuko Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren lurralde-ordezkaritzan aurkeztu, edo eredu normalizatua behar bezala beteta aurkeztu Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez. Era berean, kontuan hartu behar da alde zuzenetik egin beharreko kudeaketak aipatzen direla eredu normalizatu horretan; esaterako, fidantza jartzea, herri-erantzukizuneko aseguruaren kontratatzea, etab. Eta horrez gain, aipatutako erantzukizun-aitorpenean sinatzaileak zera *adierazten du*

ERANTZUKIZUNA BERE GAIN HARTUTA: edozein administraziok edo organismo publikok derrigor eskatzen dituzten baimen eta lizentziak badituela, eta hori adierazten duten agiriak ere badituela.

11.- Demagun “jasotzaile” huts moduan jarduten duen txikizkako agentzia batek bidaia konbinatuak saldu nahi dizkiela beste atzerriko bidaia-agentzia bati. Egin dezake halakorik?

EZ: Arlo honetako jarduna arautzen duen dekretuaren 3. artikulua ematen dituen bidaia-agentzien taldeen definizioaren arabera, beste txikizkako agentzia batzuei, baita atzerrikoak izanda ere, bidaia konbinatuak proiektatzea, sortzea, antolatzea eta/edo saltzea, “handizkako” eta “handizkako-txikizkako” bidaia-agentzien jardura espezifikoa da.

Euskadin kokatutako txikizkako bidaia-agentzia batek beste agentzia bati bidaia konbinatuak saltzea, beste agentzia hori edonon dagoela ere, lege-hauste larria litzateke, hala dator jasota Euskadiko Turismoaren antolaketari buruzko martxoaren 16ko 6/1994 Legearen 66 b artikuluan, eta 901 eurotik 9.000 eurora bitarteko isuna ordaindu beharra ekarriko luke (aipatutako legearen 73.3 artikulua isun hori ezartzen baitu kasu horretarako).

12.-Zer da, definizioz, bidaia konbinatua?

Bidaia konbinatua zer den, bidaia konbinatuak, opor konbinatuak eta ibilbide konbinatuak arautzen dituen ekainaren 13ko 1990/314/EE Zuzentarauaren 2.1. artikulua zehazten du, bai eta Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen defentsarako Lege Nagusiaren eta horren osagarri diren legeen testu bategina onartzen duen azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren 151.1.a) artikulua ere.

Definizioaren arabera, konbinaturik saltzea edo eskaintzea da, prezio global batean, ondorengo paragrafoan adierazitako elementuetatik bi, gutxienez, prestazio hori 24 ordutik gorakoa bada edo egonaldi-gau bat barnean hartzen badu. Hauek dira aurreko paragrafoan aipaturiko elementuak:

- Garraioa
- Ostata
- Garraioaren edo ostatuaren osagarri ez diren eta bidaia konbinatuaren parte esanguratsu diren beste turismo-zerbitzu batzuk.

Aipatzeko modukoa da Turismo Zuzendaritzak ezarritako irizpidea; izan ere, zuzendaritza horrek adierazitakoaren arabera, bidaia konbinatuzat hartu behar da, halaber, gau bat osorik hartzen ez duen ostatu-zerbitzua (ordukako egonaldia hoteletan).

13.- Bidaia konbinatu batean akatsen edo hutsen bat gertatuz gero, zer agenziak du erantzukizuna?

Bidaia konbinatu batek bere baitan hartzen duen zerbitzuren batean akats bat edo batzuk gertatuz gero, handizkako eta txikizkako bidaia-agentzien erantzukizuna, hain zuzen - Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko 1. ataleko 870/2009 epaiak, 2010eko urtarrilaren 10ekoak, ezarritako jurisprudentziaren arabera-, bidaia konbinatuan parte hartzen duten

agentzia guztien erantzukizun solidarioa da, nahiz beren artean atzerabidezko akzioak egon.

Handizkariaren eta txikizkariaren arteko erantzukizun-mota zehazteko, Auzitegi Goreneko Arlo Zibileko atal horrek argudio eta arrazoi hauek adierazi zituen:

- 1.- Erantzukizun solidarioaren printzipio orokorra
- 2.- Kontsumitzaileak pertsona edo sozietate batekin egiten du kontratua, eta pertsona edo sozietate hori da konfiantzaren oinarria.
- 3.- Kontsumitzailea babestea du xede 90/314/EEE Zuzentarauak.

Lehen adierazitakoaren arabera, **erantzukizun solidarioaren teknikaren bidez babesten da kontsumitzailea. Izan ere, kontsumitzaileak aukera dezake handizkariaren aurka jo, txikizkariaren aurka jo edo bien aurka jo;** eta horrez gain, bidaia kontratatu zuen bidaia-agentziaren aurka erreklamazioa egin ondoren, ezin izango zaio hirugarrenen erantzukizunen salbuespena ezarri.

Hortaz, hau da ondorioa: EAEko lurraldean kontratatutako bidaia konbinatu batek bere baitan hartzen dituen zerbitzuetako bat edo batzuk eman ez direlako edo zerbitzuarekiko edo zerbitzuekiko desadostasunen bat dagoelako, txikizkako bidaia-agentziaren aurkako erreklamazioa aurkezten bada, nahiz eta erreklamazioak haren kudeaketa-eremuarekin zerikusirik ez izan, Turismo Administrazioak txikizkariari zehapena jartzeko aukera izango du, eta azken horrek zerbitzua gaizki eman izanaren azken arduradunaren aurkako alegazioa aurkeztu ahal izango du.

Interesdunak handizkariaren aurkako erreklamazioa aurkezten badu, berriz, beste ondorio bat eragingo luke. Kasu horretan, handizkako bidaia-agentziaren aurkako zehapena jar daiteke, edozein dela haren helbide soziala, bidaia konbinatua EAEko lurraldean kontratatu zelako, eta hark dagozkion atzerabidezko ekintzak baliatu ahal izango ditu dagokionaren aurka.

14.- Espainian legeak ezarritakoaren arabera eraturako bidaia-agentzia bada, aitortu edo jakinarazi behar al du Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsal bat zabaltzeko?

Bidaia-agentziei buruzko 2012ko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 8.1 artikuluan, honela dio: *"Beste autonomia-erkidego batzuetan helbideratuta egonik bertan legez diharduten bidaia-agentziek askatasun osoa dute Euskal Autonomia Erkidegoan sukurtsalak eta saltokiak ezartzeko eta bertan jarduerari hasiera emateko, dekretu honen 4. artikuluan aipaturiko erantzukizun-aitorpena zertan aurkeztu gabe".* Horrek ez du esan nahi, ordea, kasuan kasuko autonomia-erkidegoaren legediak xedatutako betebeharretatik salbuetsita dagoenik bidaia-agentzia horren bulego nagusia. Izan ere, autonomia-erkidego horretako araudiak ezar dezake derrigorrekoa dela sukurtsal berri horren berri ematea edo erantzukizun-aitorpena aurkeztea.

15.- Bulego nagusia Euskal Autonomia Erkidegoan duen bidaia-agentzia bada eta sukurtsal bat ireki nahi badu beste autonomia-erkidego batean edo EBko estatu batean, jakinarazi behar al du sukurtsal horren irekiera?

Bai. Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 5.3 artikuluan, honela dio: *"Sukurtsal eta saltoki berrien irekiera eta itxiera (betiere horrek aurretiaz eraturiko fidantzak eraginpean hartzen ez baditu) eta aurkezturiko erantzukizun-aitorpenaren barnean hartuta egonik artikuluko honen aurreko idatzi-zatien berdinak ez diren datuen eta adierazpenen beste edozein aldaketa turismo-alorrean eskuduna den Zuzendaritzan jakinarazi beharko da aldaketa gauzatu eta hilabeteko denbora-tartean"*. Horrenbestez, sukurtsal berriak aldatu egiten badu eraturitako bermearen zenbatekoa, berri eman ordez, aitortutako aldaketa egin baino lehen aurkeztu behar du titularrak erantzukizun-aitorpena; izan ere, aipatutako 81/2012 Dekretuaren 4.6 artikulua ezarritakoaren arabera, funtsezko aldaketa bat da, eraturitako bermeari eragiten diolako.

Aipatutako artikuluetan ezarritakoa bete behar du titularrak, eta horrez gain, sukurtsal berria ezarriko den EBko estatuak edo autonomia-erkidegoak bidaia-agentzien sukurtsalen irekiera-alorrean xedatutakoa ere bete behar du.

16.- Edonork saldu al ditzake bidaia konbinatuak?

Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 5.3 artikuluan, honela dio: *"Bidaia-agentziatzat hartuko dira bidaia konbinatuak antolatzeke eta bitartekotza komertziala edo merkaturatzeko lanbide- eta merkataritza-jardueretan diharduten pertsona fisiko edo juridikoak titular gisa dituzten enpresak"*.

Horrez gain, azaroaren 16ko 1/2007 Legegintzako Errege Dekretuaren (kontsumitzaileen eta erabiltzaileen 2007ko legea) 151.2 artikulua dio: *"Liburu honetan aurreikusitako ondorioetarako, administrazio-araudiaren arabera bidaia-agentziatzat hartuak izan behar dute antolatzaileak eta xehekariak"*. Legegintzako Errege Dekretu horren 150.1 b) artikuluan honela definitzen da "antolatzailea": *"pertsona fisiko edo juridikoa, noizbehinkakoa ez den modu batean bidaia konbinatuak antolatzen eta saltzen edo salmentarako eskaintzen dituena, berak zuzenean edo xehekari baten bitartez"*; eta 150.1 c) artikuluan, berriz, honela definitzen da "xehekaria": *"antolatzaile batek proposaturiko bidaia konbinatua saltzen edo salmentarako eskaintzen duen pertsona fisiko edo juridikoa"*.

Adierazitakoaren arabera, bidaia-agentziak bakarrik aritu ahalko dira, profesionalik zein komertzialki, bidaia konbinatuak antolatzen, merkaturatzen edo merkataritza-bitartekotzako jardueretan.

Bidaia-agentziei buruzko maiatzaren 22ko 81/2012 Dekretuak, 10. artikuluan, honela dio: *"Izaera pribatuko pertsona fisiko edota juridikoek eta izaera bereko bestelako taldeek, elkarteek eta erakundeek –edozein motatakoek–, oro har jendearen artean publizitatearen bitartez irabazi-asmorik gabeko bidaia konbinatuak sustatu nahi badituzte, legez eraturiko bidaia-agentzia bati enkargatu beharko diote egiteko hori."* Beraz, pertsona bat ez badago bidaia-agentzia modura legez eraturik, bidaia konbinatuak soilik antolatu ahalko ditu, baldin eta:

- Bidaia konbinatua ez bada jendearentzat orokorrean, baizik eta bere kideentzat edo lagunentzat, eta ez badu jendearen artean publizitatearen bitartez sustatzen.
- Ez badu irabazi-asmorik.
- Ez bada ohikoa eta ez bada bidaia konbinatuak antolatzen edo merkaturatzen dituen profesionala.